

Gurasoentzako hainbat orientabide *etxetik* hezkuntza prozesuarekin jarraitzeko:

Gaur egun bizi dugun egoerak eskola komunitatea erronka handi baten aurrean ipintzen du. Orientaziotik hainbat jarraibide edo aholku eskeini nahi dizkizuet:

1. Zuen seme-alabek denbora bat zehaztu beharko dute egun hauetan irakasleek bidaltzen dizkieten etxeko lanak eta jarduerak egiteko. Horretarako egunez egun, **PLANIFIKAZIO** tresna bat beharko dute (taula bat ordutegiarekin, agenda...).
2. Ohiturak, errutinak... bultzatzeko, konstantea izan behar zara.
3. Gauzak egiteko denbora soberan egongo da eta **horregatik jarduerak aldatzea eta dosifikatzea** komenigarria izango da. Eguna eraginkortasunez aprobetxatzeko lan egiteko bi zatitan banandu: goizean eta arratsaldean. Gainera atsedenaldiak tartekatu beharko dituzte.
4. Irakasleek egindako lanak **ebalutzeko** direla gogoratu behar duzue.
5. **Etxeko lanak** (mahaia batzea, garbitzea, arropa eskegi, erratza edo aspiradora erabiltzea...) **elkarbanatu** behar dira familiakoen artean. Une egokia da etxeko lanak duen garrantziaz jabetzeko eta hainbat gauza ikasteko (sukaldatzea...). Lan banaketa hau adostu beharko da.
6. **Aisialdia**: lanak egiteaz gain (etxeko lanak eta eskolako lanak) zuen seme-alabek denbora libre izango dute. Aisialdian jolasteko eta pelikulak, mugikorrak, musika, bideoak entzun eta ikusteko aukera izango dute. **Sormena bultzatu** ere marrazkiak, komikiak eta esku-lanak egiten.
7. **Irakurtzeko garaia** ezin hobea da.
8. Erabili internetak eskeintzen dizkigun baliabideak (museo bisita birtualen, dokumentalak...) baina **gailu elektronikoen erabilera mugatu**, aintzat hartuta zuen seme-alabak eskolako lanak egiteko eta lagunekin komunikatzeko denbora luze pantailen aurrean pasatuko direla.
9. Familiakoen artean mahai-jokoetara jolasteko (trivial, kartak, damak, monopoly...) eta solasaldiak izateko aprobetxatu aukera ezin hobea da. Pelikula batzuk batera ikusi.
10. Zure etxebizitzak eskeintzen dizun aukeren arabera bilatu modu ezberdinak ariketa fisikoa egiteko (zoomba, youtuben tutorialak).
11. Seme-alabekin komunikatzeko, entzun arretaz haien eskatzen digutena erabaki bat hartu baino lehen. Inposaketaz baino, elkarriketatuz eta negoziazioez jokatzeko saiatu.
12. Bere hutsuneak, akatsak kritikatu, zuzendu, zentratu egin duten ekintza zehatzetan, baina etiketak jarri barik.
13. Bizitza ordenatu bat eraman dezan oso garrantzitsua da: lo egiteko orduak, gosariak eta bazkariak orokorrean erregulatu.
14. Gure rola edo papera gurasoena izaten jarraitzen da, gu ez gara seme-alaben lagunak, "kolegak"...
15. Leku guztietan, egoera, lagun eta familia guztietan gertatzen diren gatazkeen aurrean pazientziaz jokatu. Zure seme-alaben eta zuen emozio eta sentimentuez hitz egiteko eta maneiatzen ikasteko egoera horiek erabili (hezkuntza emozionala etxean ere garatu).